

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2023 Foru Dekretua, otsailaren 28koa. Onespena ematea Basogintzarako Laguntza Plana arautzeko oinarriari eta 2023rako deialdiari

Azaroaren 27ko 27/1983 Legeak, autonomia erkidegoko erakunde erkideen eta haren lurralde historikoetako foru organoen arteko erlazioarenak (LHL), 7. a) 9 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Arabako Foru Aldundiak eskumen eskusiboa dauka mendi gaietan, aprobetxamenduetan, baso zerbitzuetan, abelbideetan eta larreetan (Autonomia Estatutuaren 10.8. artikulua ezarritakoaren arabera), bai eta baso zaintzan eta nekazaritza eta baso lurzoruen kontserbazioan eta hobekuntzan ere.

Mendiei buruzko eskumen eskusibo horretan oinarrituta, beharrezkotzat eta bidezkotzat jotzen da Foru Aldundiaren funtsen bidez laguntza ematea Arabako Lurralde Historikoko titular publikoek mendiak kontserbatzeko aurrera eramaten dituzten jarduketari.

Arabako Lurralde Historikoaren ezaugarrietariko bat da mendi publiko asko dituela (lurralde osokoen ehuneko 48) eta horiek kontzeju eta udalen jabetzakoak direla. Gehienetan mendi horietan baso autoktonoak azaltzen dira eta, hala, Araban Natura 2000 Sarearen azaleraren ehuneko 80 osatzen dute ia-ia. Baso horiek babesteko eta hobetzeko zeregina, bai eta Natura Sareko eremuen kudeaketa planek gestioari ezartzen dizkioten mugen konpentsazioa ere Arabako Basogintzarako Laguntza Planaren lehentasunetako bat dira.

Arabako baso sektore pribatua gehienbat ustiategi txikietan biltzen da eta horiek intsinis pinua eta ziklo laburreko bestelako ekoizpen espezieak ekoizten jarduten dute. Mendi publikoarena baino lurralde hedapen txikiagoa izanagatik ere, azpimarratzekoak dira haren garrantzi sozioekonomikoa eta masa horiek gizarteari dakarzkieten zuzeneko onurak. Horien artean kokatzen da Europak gaur egun landa garapenaren alde abiarazitako politikaren helburuen barruan funtsezkoa den bat, alegia, klima aldaketa apaltzeko zeregina.

Basogintzarako Laguntza Plan honek oso neurri garrantzitsuak sustatzen ditu basotzeari, baso azalerak sortzeari eta basoko suteek eta bestelako natura hondamenek eragindako kalteak prebenitzeari eta birgaitzeari begira, bai jabetza publikoko mendietan bai partikularrenetan.

Beste alde batetik, Araban emakumezkoen eta gizonen berdintasuna sustatzeko foru planaren xede nagusiari men eginez, hau da, epe laburrean eta ertainean emakumezkoen eta gizonen berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko zereginari erreparatuz eta emakumezkoek baso sektorean duten presentzia urria kontuan hartuz, laguntzak emateko lehentasun irizpideak sartu dira generoaren arabera, betiere emakumezkoen presentzia erabaki eta eragin arloetan sustatzeko eta emakumezkoen kontratazioa bultzatzeko.

Oinarri arautzaileak bat datoz Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoarekin, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa betetzeari dagokionez, bai eta sexuagatiko diskriminazio mota oro berariaz debekatzeari dagokionez ere.

Honako hauek dira Arabako Basogintzarako Laguntza Planean jasotako laguntza lerroak edo neurriak:

- Basotzea.
- Basoetako kalteak prebenitzea.
- Basoetako kalteen konponketa.

- Ingurumen helburuak dituzten baso jarduketak.
- Baso potentziala hobetzeko inbertsioak.
- Baso sektorearen garapenarekin, modernizazioarekin edo egokitzapenarekin lotutako azpiegiturak.
- Basoen kontserbazioa.

Laguntza ildo horiek bat datoz NPB 2023-2027 Plan Estrategikoarekin.

Dirulaguntza hau 2022ko abenduaren 14ko 2474/2022 (EB) Erregelamenduko 14. artikuluan ezarritako arauketen arabera ezarriko da, zeinetan laguntza kategoria batzuk aitortzen baitira nekazaritza eta basogintza sektoreetan, eta, Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuko 107. eta 108. artikulua aplikatuz, barne merkatuarekin bateragarriak diren landa eremuetan.

Batasunaren arautegietan laguntza horiek eskuratzeko exijitutako betekizun berriak kontuan hartuz, beharrezkoa da betekizun horiei lotutako oinarri arautzaile berriak prestatzea eta aurrekoak indargabetzea, bai eta 2023rako laguntza hauen deialdia onartzea ere.

Kontuan hartuz Arabako Foru Aldundiak 2023rako onetsiko duen gastu aurrekontu proiektuan ezartzen dela laguntza deialdi hau finantzatzeko kreditua duten partidak izango direla, bidezkoa da hura alde aurretik izapidetzea.

Ikusirik aginduzko txostenak, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatu eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Basogintzarako laguntza planaren oinarri arautzaileak onestea, foru dekretu honen eranskinean agertzen diren artikuluen arabera.

Bigarrena. Basogintzarako 2023ko laguntzen deialdia onestea, jarraian zehaztutakoaren arabera:

Laguntza lerroak edo neurriak:

- Basotzea (81 kodea).
- Basoetako kalteak prebenitzea (83 kodea).
- Basoetako kalteen konponketa (84 kodea).
- Ingurumen helburuak dituzten baso jarduketak (85 kodea).
- Baso potentziala hobetzeko inbertsioak (86 kodea).
- Baso sektorearen garapenarekin, modernizazioarekin edo egokitzapenarekin lotutako azpiegiturak (43 kodea).
- Basoen kontserbazioa (99 kodea).

Eskaerak aurkezteko epea:

30 egun baliodun ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Kreditu erreserbak.

Arabako Foru Aldundiaren 2023ko gastu aurrekontuaren barruan jarraian aipatzen diren partiden kontura:

	NEURRIA	2023KO URTEKOA	2024KO URTEKOA	DEIALDIA, GUZTIRA
Denak guztira		1.096.934,40	500.000	1.596.934,40
Mendi publikoetako laguntzak, guztira: 40106. G/172400/76290404		750.000	350.000	1.100.000
Laguntzak mendi publikoetan	84	5.000	5.000	10.000
Laguntzak mendi publikoetan	83	100.000	5.000	105.000
Laguntzak mendi publikoetan	81	5.000	220.000	225.000
Laguntzak mendi publikoetan	43	615.000	110.000	725.000
Laguntzak mendi publikoetan	86	5.000	5.000	10.000
Laguntzak mendi publikoetan	99	20.000	5.000	25.000
Mugaketak eta mugarritzeak, guztira: 40106. G/172400/76290403		50.000	50.000	100.000
Mugaketak eta mugarritzeak	85	50.000	50.000	100.000
Mendi pribatueterako dirulaguntzak, guztira: 40106. G/172400/76290400		296.934,40	100.000	396.934,40
Mendi pribatueterako dirulaguntzak	84	50.000	5.000	55.000
Mendi pribatueterako dirulaguntzak	83	226.934,40	5.000	234.834,40
Mendi pribatueterako dirulaguntzak	81	10.000	85.000	92.100
Mendi pribatueterako dirulaguntzak	86	10.000	5.000	15.000

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidan edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, deialdi osorako hasierako zenbateko erreserbatua adina izango dira.

Azpineurriren batean kreditu soberakina egonez gero, beste neurrietara bideratu ahalko da premia izanez gero, kontuan izanda zein lehentasun ordena ezarri den oinarri arautzaileen 9. artikuluan.

Hirugarrena. Foru dekretu honen bosgarren idatz zatian indargabetutako arautegiaren babespean onartutako azken deialdietan emandako laguntzen onuradunak ezin izango dira onuradun izan deialdi honetan ez eta deituko den hurrengoan ere, baldin eta emandako epeetan diruz lagundutako lanak edo proiektuak egin ez badituzte edo haien burutzapena inbertsio onartuaren zenbatekoaren ehuneko 50etik beherakoa izan bada behar bezala justifikatu gabe.

Laugarrena. Nekazaritzako foru diputatuari ahalmena ematea honako foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Xedapen indargabetzailea

Foru dekretu honen aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak indargabetzea eta bereziki, Diputatuen Kontseiluaren 45/2016 Foru Dekretua, ekainaren 7koa, zeinaren bidez onesten baitira Basogintzarako Laguntza Plana arautzen duten oinarriak eta 2016rako deialdia, 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapenerako Programaren esparruan.

Azken xedapena

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE



I. ERANSKINA

ARABAKO BASOGINTZARAKO LAGUNTZA PLANAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Helburua.

1.1. Foru Dekretu honen xedea da Arabako Basogintzarako Laguntza Planaren oinarri arautzaileak ezartzea, NPBren Plan Estrategikoarekin bat etorriz.

1.2. Arabako basogintzarako laguntza planaren lehentasunak honako hauek dira:

- Biodibertsitatea eta paisaia zaharberritzea eta babestea.
- Baso kudeaketa iraunkorra sustatzea eta basogintzaren lehiakortasuna bultzatzea.
- Baliabideen efizientzia sustatzea eta karbonoan txikia izango den ekonomia bateranzko urratsa egiteko bultzada ematea klima aldaketari aurre egiteko, karbonoa finkatuz eta harrapatuz.
- Lurzoruen higaduraren prebentzioa sustatzea.
- Basoen erresilientzia handitzea natura hondamendien aurrean.
- Landa ingurunean enplegua sortzea eta basoen gizarte eta aisialdi zeregina sustatzea.

1.3. Foru dekretu honetan ezarritako laguntza lerro guztiak Arabako Basogintzarako Laguntza Plana osatzen dute.

2. artikulua.- Laguntza lerroak edo diruz lagun daitezkeen neurriak.

2.1. Foru dekretu honetan arautzen diren laguntza lerroak edo neurriak honako hauek dira:

- Basotzea
- Basoetako kalteak prebenitzea
- Basoetako kalteen konponketa
- Ingurumen helburuak dituzten baso jarduketak
- Baso potentziala hobetzeko inbertsioak
- Baso sektorearen garapenarekin, modernizazioarekin edo egokitzapenarekin lotutako azpiegiturak
- Basoen kontserbazioa

2.2. Diruz lagundu ahal izango dira obra proiektua idazteari buruzko jarduketa orokorren kostuak, obra zuzendaritza teknikoak, segurtasunari buruzko laguntza proiektuan zein obretan eta inbertsio bati lotutako proiektua definitzeko beharrezkoak diren azterlan guztiak.

2.3. Honako kode hauek erabiliko dira laguntzak kudeatzeko:

- Basotzea: 81
- Basoetako kalteak prebenitzea: 83
- Basoetako kalteen konponketa: 84
- Ingurumen helburuak dituzten baso jarduketak: 85
- Baso potentziala hobetzeko inbertsioak: 86
- Baso sektorearen garapenarekin, modernizazioarekin edo egokitzapenarekin lotutako azpiegiturak: 43
- Basoen kontserbazioa: 99



3. artikulua.- Onuradunak.

3.1. Foru Dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradunak honako hauek izango dira: 4. artikuluan zehaztutako betekizun orokorrez gain, kasuan kasuko laguntza lerroetan zehaztutakoak ere betetzen dituzten pertsona fisikoak, pertsona juridikoak (edo elkarteak), pertsona fisiko nahiz juridikoen elkarteak edota erakunde publikoak.

3.2. Foru dekretu hau aplikatzearen ondorioetarako, pertsona juridikoen legez eraturik egon beharko dute; halaber, sozietate zibil, titulartasun partekatuko erakunde eta ondasun edo jaraunspen erkidego baten esku dauden nekazaritza ustiategiak nortasun juridikoa duten ustiategitzat hartuko dira.

3.3. Foru dekretu honen ondorioetarako, onuraduna gaztetzat hartu ahal izateko, eskaeraren datan 41 urtetik beherako adina izan beharko du. Bazkideei dagokienez, gaztearen izaera eskuratuko da, baldin eta gutxienez kideen ehuneko 50ak adinaren beharkizun hori betetzen badute.

3.4. Era berean, emakumezkoaren izaera eskuratuko da, baldin eta pertsona juridiko edo bazkidetza eskatzailearen kideen ehuneko 50 emakumezkoak badira.

3.5. Jabe elkarte edo taldeen kasuan, legez eraturik badaude eta koniferoen gaixotasun kriptogamikoaren kontrako tratamendu fitosanitario prebentiboko lanak egiten edo kontratatzen badituzte, bai eta basoko pistak eraikitzeko, egokitzeko, hobetzeko eta mantentzeko lanak egiten badituzte ere, pertsona onuradunatzat hartu ahal izango dira Foru Dekretu honen deialdian.

Legez eraturik elkarte edo taldeek beren erakundeak ez diren lurren titular pribatuen ordezkari gisa jardun ahal izango dute, baldin eta dirulaguntza tratamendu fitosanitario prebentibora bideratuta badago. Nolanahi ere, onuradunak lurren titular diren pertsona pribatuak izango dira, eta elkarte ordezkariari jaso beharreko zenbatekoen endosua egingo zaio, haien artean sinatutako akordioen arabera.

4. artikulua.- Onuradunen betekizunak.

Laguntza hauen onuradunek honako betekizun orokor hauek bete beharko dituzte:

4.1. Lurren erabilera edo gozamen eskubideen jabeak edo titularrak izatea. Gerta daiteke pertsona fisiko edo juridikoa lur guztien edo horien zati baten jabea ez izatea; halakoetan, eskaerarekin batera, jabe bakoitzaren beren-beregiko baimena aurkeztu beharko du, diruz lagun daitezkeen lanak egitearekin bat datozela adieraziz. Kasu horretan, erabilera eskubideak beste eskatzaile batzuei eskuordetzen dizkietenek ezin izango dute banakako laguntzarik eskatu deialdi berean.

4.2. Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko galerarekin zigorturik ez egotea ez zigor bidean ez administrazio bidean, ez eta horretarako gaitasungabetzen duen legezko debekuren bat ez izatea ere, horren barruan sarturik sexu diskriminazioagatik gertatutako debekuak, betiere otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunarenak, azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoaren arabera.

4.3. Ez egotea itzulketa edo zigor prozeduraren baten pean.

4.4. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik izatea. Sozietate zibilen, titulartasun partekatuen eta ondasun erkidegoen kasuan, gainera, kide guztiek Gizarte Segurantzaren betebeharrak betetzen dituztela egiaztatuko da.



4.5. Hala badagokio, dirulaguntzak itzuli beharrikatuak ordaindu beharrekoak ordainduta edukitzea, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezartzen duen moduan.

5. artikulua.- Inbertsioak onartzeko betekizun orokorrak.

Diruz lagunduak izan daitezzen, inbertsioek honako betekizun orokor hauek beteko dituzte, bai eta neurri bakoitzean ezarritako betekizun zehatzak ere:

5.1. Inbertsioaren xede diren basoak eta baso azalerak Arabako Lurralde Historikoan kokaturik egongo dira.

5.2. Azalerari loturik dauden eta mendi pribatuaren 5 hektareatik, lursail bakar baten 20 hektareatik edo kokaleku sakabanatuaren 35 hektareatik gorako azalerak ukitzen dituzten jarduketei dagokienez, basogintza kudeaketa iraunkorrari buruzko plana, antolamendu proiektua edo tresna baliokidea aurkeztu beharko da, laguntza eskuratu ahal izateko.

5.3. Hala dagokionean, eraikuntzak edo instalazioak egiteko, behar den udal lizentzia eskuratu beharko da.

5.4. Jarduketak Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legearen eta Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren definizioaren arabera basotzat jotzen diren lurretan egongo dira. Era berean, basoko lurretatik kanpo nahitaez egin behar diren beste jarduketa batzuk ere aukeratu ahal izango dira, hala nola nekazaritza lurretako basotzeak, azpiegiturak, etab.

Baso lurretatik kanpo eraikitzen diren azpiegituren kasuan, argi eta garbi justifikatu beharko da baso lurrekin duten lotura eta lur horien kanpoaldean kokatzeko beharra.

6. artikulua.- Kostuak neurtzea eta inbertsioak ebaluatzea.

6.1. Neurri horiei begira inbertsioak balioztatu ahal izateko eta lanen tipologiak ahalbidetzen duenean, III. eranskinean jasotako moduluak ezartzen dira. Moduluak gehieneko inbertsio gisa ezartzen dira.

Modulu horiek eguneratu ahal izango dira, hala badagokio, Nekazaritza Sailaren Foru Agindu bidez.

6.2. Mendi Zerbitzuko txosten teknikoaren bidez behar bezala justifikatutako salbuespeneko kasuetan izan ezik, laguntza eskaeraren xede diren inbertsioetarako balorazio zehatzak egin ahalko dira, modulu aplikagarrietan adierazten direnez bestaldeko balorazioak, alegia.

6.3. Inbertsioen kostu bateratua modulaturik ez dagoen kasuetan, onuradunak, gutxienez, hornitzaile baten eskaintza edo teknikari eskudunak sinatutako memoria balioetsi edo proiektu bat aurkeztu beharko du, dirulaguntza kalkulatzeko kontuan hartuko dena, hargatik eragotzi gabe Mendi Zerbitzuak, justifikatuta, diruz lagundu daitekeen zenbatekoa murriztea, merkatuko ohiko prezioetara egokitzen ez bada. Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa sektore publikoko kontratazioari buruzko arauetan kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoa baino handiagoa bada eta, betiere, hirugarrenekin kontratatzen bada, pertsona onuradunak hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen.

**7. artikulua.- Gastu onargarriaren mugak.**

7.1. Onuradun eta urte bakoitzeko, diruz lagun daitekeen inbertsioa edo inbertsioen batuketa gehienez 70.000 eurokoa izango da eta gutxienez 2.000,00 eurokoa, honako kasu hauetan izan ezik:

- Basoen kudeaketa jasangarrirako plan teknikoak; ez dute gutxienerako mugarik izango.
- Kalteak prebenitzea, hutsarteak betetzea eta ongarritzea. Jarduketa horietako bakoitzerako bi hektareako gutxienerako azalera ezartzen da inbertsio mota berean.

7.2. Interes orokorreko inbertsio publikoei dagokienez eta Mendi Zerbitzuaren aldeko txostena egonez gero, gehienerako kopurua gainditu ahal da.

8. artikulua.- Laguntzen era, ehuneko eta zenbatekoa.

Laguntzek zuzeneko diru-laguntzen moldea hartuko dute neurri edo laguntza lerro bakoitzean adierazitako gastu onartuaren gaineko kopuruetan.

9. artikulua.- Espedienteak izapidetzeko lehentasuneko taldeak.

Kreditu erreserba partekatzen duten neurrien laguntzak izapidetzeko, honako lehentasun talde hauek ezartzen dira tramitazioan, behin neurri bakoitzean ezarritako lehentasuneko irizpideak aplikatuta, taldeon arabera izapidetzeko:

1. 99 kodea Basoen kontserbazioa
2. 81 kodea Basotzea
3. 83 kodea Basoetako kalteak prebenitzea
4. 43 kodea Baso sektorearen garapenarekin, modernizazioarekin edo egokitzapenarekin lotutako azpiegiturak
5. 85 kodea Ingurumen helburuak dituzten baso jarduketak
6. 84 kodea Basoetako kalteak prebenitzea
7. 86 kodea Baso potentziala hobetzeko inbertsioak

Talde bakoitzak ondorengoak baino lehentasun handiagoa izango du, talde bateko eskari guztiak artatzeko adina kreditu ez badago, ez dira hurrengo taldekoak aztertuko.

Talde bakoitzaren barruan, punturik gehien eskuratzen dutenek izango dute lehentasuna, betiere neurri bakoitzean ezartzen diren lehentasun irizpideak aplikatu eta gero.

10. artikulua.- Eskabideak aurkezteko epea, era eta tokia.

10.1. Urtero laguntzen deialdia onartuko da; haren barruan honako hauek jasoko dira:

- Laguntzak deitzeko laguntza lerroak edo neurriak.
- Eskabideak aurkezteko epea
- Deialdia ebazteko gordetzen diren kredituak.

10.2. Laguntza eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo inbertsioaren xede diren lurren kokapenari dagokion Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan aurkeztu beharko dira, eskatutako inbertsioa hasi aurretik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 16.4 artikuluan (urriaren 1eko 39/2015 Legea) ezarritakoari kalterik egin gabe.



Baso kudeaketa jasangarrirako planak idazteko laguntzek ez dute aurreko paragrafoan zehaztutakoa bete beharko, eskaera egin aurretik idatzi eta fakturatu ahal izango baitira.

Lanak hasi ondoren, tratamendu fitosanitarioetarako laguntza eskaerak ere aurkeztu ahal izango dira, premiaz aplikatu behar direnean, eta, salbuespen gisa, edozein laguntza, Mendi Zerbitzuak arrazoi justifikatuengatik hala baimentzen badu. Kasu horietan, lanak hasi aurretik, onuradunak idazki bat aurkeztu beharko dio Mendi Zerbitzuari, honako informazio honekin:

- Pertsona fisiko edo juridiko eskatzailearen identifikazioa. Enpresen kasuan, zehaztu enpresa txikia, ertaina edo handia den.
- Proiektuaren edo jardueraren deskribapena
- Aurreikusitako hasiera eguna eta amaiera eguna
- Proiektuaren edo jardueraren kokapena
- Aurrekontua

10.3. Eskabideak inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira, eta honako dokumentazio hau erantsi behar zaie (eskatzaileak erakunde publikoak direnean, ez dira eskatuko 10.3.1., 10.3.2., 10.3.3. eta 10.3.4. ataletako agiriak):

10.3.1. Eskatzailearen NAN/IFZren fotokopia. Ustiategi elkartuak izanez gero, eratze agiria aurkeztuko da, bai eta kide bakoitzaren NANaren fotokopia ere.

10.3.2. Arabako Lurralde Historikotik kanpoko zerga egoitza duten eskatzaileei dagokienez, zerga betebeharrak egunean ordainduta dituztela ziurtatzen duen egiaztagiria.

Hori dela eta, 18/1997 Foru Dekretuan xedatutakoa aplikatuko da (otsailaren 11koa, beste honek partez aldatua: 58/2004 Foru Dekretua, urriaren 5ekoa, dirulaguntzen onuradunek zerga betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzekeko prozedurari eta egiaztatzeke betebeharrak horretatik salbuesteko araubideari buruzkoa).

10.3.3. Nekazaritza Sailari baimena ematea, sail horrek eska ditzan zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan zein egoeretan dagoen egiaztatzeke agiriak. Baimenik eman ezean, titulartasun partekatuko sozietate zibileko edo erakundeko kideen egiaztagiriak aurkeztu beharko dira.

10.3.4. Laguntza eskatzen deneko lurren jabetza edo erabilera eskubidea egiaztatzen duen agiria. Halaber, 4.1. artikulua zehaztutako kasuan, beren-beregiko eskuordetze agiria erantsiko da.

10.3.5. Memoria edo txosten teknikoa, nahitaezkoa den kasuetan.

10.3.6. Baso kudeaketa iraunkorrari buruzko plana, antolamendu proiektua edo tresna baliokidea, nahitaezkoa denean.

10.3.7. Planoa eskala egokian eta SIGPAC basean, katastroko lurzatiak eta jarduketa eremuak identifikatuz.

10.3.8. Ingurumen eraginaren ebaluazioari buruzko azterlana, nahitaezkoa denean.

10.3.9. Arabako Foru Aldundiko hirugarrenetan alta emanda egon beharko du. Bestela, izena eman beharko da, ezarritako prozedurei jarraituz.



10.3.10. Inbertsio bera finantzatzeko beste diru sarrera edo dirulaguntzarik eskatu edo jaso ez direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, edo, eskatu edo jaso badira, jatorria, zenbatekoa eta helburua xehatzea.

10.3.11. Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio zehapenik edo zehapen penalik ez dagoela zehazten duen erantzukizunpeko adierazpena, ez eta horretarako legezko inolako debekurik izan ere, sexu bereizkeriagatiko debekuak barne.

10.3.12. Itzulketa edo zehapen prozesurik ez duela abian eta, hala badagokio, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean ordainduta dituela zehazten duen erantzukizunpeko adierazpena, betiere azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, ezarritakoari jarraituz.

10.3.13. Hala badagokio, laguntzak lehenesteko aurreikusitako kasuak egiaztatzeko behar den dokumentazio egokia.

10.3.14. Eskaeran adierazten bada emakumezkoen kontratazio berriak egingo direla, zinpeko adierazpena aurkeztu beharko da. Adierazpen horretan berriaz adierazi beharko da nola eramango diren aurrera laguntzaren xede diren jarduketak edo inbertsioak eta zein izango den kontratazio mota.

10.4. Mendi Zerbitzuak, ezarritako elkarreragingarritasun zerbitzuen bidez, behar diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu laguntzen izapide administratiboak egiteko eskatzen diren eta Administrazioaren esku dauden eskatzaileen datuei buruz, betiere eskatzaileek berriaz aurka egiten ez badute; kasu horretan, eskatutako ziurtagiriak eta dokumentuak aurkeztu beharko dituzte. Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Mendi Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkoak diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.e) artikuluari dagokionez (datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa), bai eta Datuak Babesteko Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera ere (3/2018 LO).

10.5. Eskaeretan akatsak edo zehaztasunik eza antzematen badira edo eskaerok osatu gabe badaude, 10 egun balioduneko epea emango zaie eskatzaileei akatsa zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskaeran atzera egin dutela ondorioztatuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan xedatzen denaren arabera.

10.6. Laguntza eta ordainketa eskaerak osorik edo zati batean kendu ahal izango dira edozein unetan, salbu eta organo kudeatzaileak onuradunari jakinarazi badio ez-betetze kasuak daudela edo lekuan bertan kontrola egiteko asmoa duela, edo lekuan bertan egindako kontrol batek ez-betetze kasu bat agerian utzi badu. Kasu horietan, ezin izango dira kendu ez-betetzeak eragindako dokumentuen zatiak.

11. artikulua.- Kreditu erreserbak.

Laguntzetarako deialdietan ezarritako kreditu erreserbak zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidan edozein arrazoirengatik gerta litekeen kreditu



gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, deialdi osorako hasierako zenbateko erreserbatua adina izango dira.

Neurriren edo azpineurriren batean kreditu soberakina egonez gero, beste neurrietara bideratu ahalko da premia izanez gero, kontuan izanda zein lehentasun ordena ezarri den oinarri arautzaileen 9. artikuluan.

Deialdia ebatzi ondoren, aurrekontu sailean kreditu gehikuntzarik izan bada beste partida batzuen transferentziengatik, edo emandako dirulaguntzei uko egin, deuseztatu edo zenbateko txikiagoak ordaindu direlako, eta aurrekontuko kreditua nahikoa izan ez delako zenbait eskabideri erantzun ez bazaie, kreditua eskabide horietan erabiliko da, ezarritako lehentasun irizpideei jarraikiz.

12. artikulua.- Izapidetzea.

12.1. Eskaerak aurkezteko epea amaituta, espedienteak Mendi Zerbitzuak izapidetuko ditu. Zerbitzuak aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta hari buruzko txosten teknikoa prestatuko du; hala badagokio, txosten horretan jasoko da eskatutako jarduketak Natura 2000 Sarearekin bateragarriak diren ala ez, baita diruz lagundutako jarduerak gauzatzean nahitaez bete beharreko baldintza teknikoak ere. Baldintza horiek betetzen ez badira, ordainketa ukatu edo gutxitu egingo da.

12.2. Espedienteak instruitzen den bitartean, laguntzaren organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko ditu, ebazpen proposamena egiteko xedearekin beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 73. artikuluan xedatutakoari men egingo zaio.

12.3. Kreditu bateratua aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko nahikoa ez bada, basogintzarako laguntza planeko lerroetarako esleitutako kredituak berresleituko dira, eskaera ahalik eta gehieni erantzuteko.

Foru Dekretu honetan xedatutako laguntzak norgehiagoka prozedura bidez izapidetuko dira, oinarri hauetan lerro edo neurri bakoitzerako jasotako balorazio irizpideen arabera, NPBren Plan Estrategikoarekin koherente izanik eta Foru Dekretu honen 9. artikuluan ezarritako lehentasun taldeen arabera.

12.4. Behin espedienteak aztertuta, kide anitzeko balorazio organoak egindako ebaluazioaren emaitza zehazten duen txostena prestatuko du, ezarritako lehentasunen arabera irizpideak aplikatuz eta aurrekontuaren eskuragarritasuna kontuan hartuz. Orobat, hala badagokio, espediente bakoitza ezesteko arazoak zehaztuko ditu eta baietsitako espedienteek betekizunak betetzen dituztela azalduko du.

12.5. Laguntzak emateko kide anitzeko balorazio organoko kideak honako hauek izango dira:

- Baso Zerbitzuko buruzagitza
- Mendi Zerbitzuari atxikitako teknikari bat, laguntzetan aditua
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua

13. artikulua.- Ebazpena eta jakinarazpena.

13.1. Foru organo eskudunak ebatziko ditu espedienteak, indarrean den araudiaren arabera.



Basogintzarako laguntza planaren kreditu erreserba, oro har, aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko nahikoa denean, kreditu transferentziak egingo dira eskaera guztiei erantzuteko beharrezkoak diren neurrien artean.

Baldintzak betetzen dituzten espediente guztiei laguntzak emateko kreditu nahikorik ez badago, ebazpen bat emango da, eta bertan proposamen positiboko espedienteak sartuko dira, harik eta kreditu erreserbatua agortu arte, lehentasun irizpideak aplikatzearen ondoriozko ordenari jarraituz, eta proposamen negatiboa duten espedienteak.

Kreditua handitzen bada, ebazpen osagarriak hartu ahal izango dira, gehienez ere deialdiaren urteko azken hiruhilekoan, eta laguntzak emango zaizkie dagozkien espedientei, aurretik ezarritako lehentasun ordenari jarraituz.

Hartutako ebazpenek amaiera emango diote administrazio bideari, eta, haien aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hura arautzen duen araudiaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsioa jartzeko aukerari kalterik egin gabe.

13.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabete izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. Epealdi horretan berariazko ebazpena ematen eta jakinarazten ez bada, administrazioaren isiltasunak eskaera ezetsi duela pentsatu beharko da, halaxe xedatzen baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 25.5 artikuluan.

13.3. Emakida ebazpenek honakoak ezarriko dituzte: zenbatekoak diren emandako dirulaguntzak, zein inbertsionetarako eman diren, zein den diruz lagundutako gastua eta zein den horiek finantzatzeko jatorria. Ebazpena negatiboa izenez gero, arrazoiak zehaztu beharko da.

13.4. Laguntzaren ebazpena banaka jakinaraziko da eta, ere berean, honako informazio hau guztia ere adieraziko da jakinarazpenean: emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, ehunekoa, diruz laguntzen den inbertsioa, diruz lagundutako inbertsioaren gaineko gastua, gauzatzeko epea eta urtekoak eta, hala badagokio, laguntza ezesteko arrazoiak. Diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko nahitaez bete beharreko baldintza teknikoak ere jasoko ditu, halakorik balego.

14. artikulua.- Dirulaguntzak ordaintzea.

14.1. Dirulaguntzak ordaintzeko, onuradunek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute, gehienez ere 10 egun naturaleko epean, betiere laguntza emateko ebazpenean zehaztutako burutzapen epea amaitzen denetik aurrera:

- Ordainketa eskaera, diruz lagundutako jarduketara mota bakoitzerako gauzatzeko unitate kopuruaren aitortpenarekin.

- Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena ez dela diruz lagundutako jarduerara bera finantzatu duen bestelako diru sarrera edo dirulaguntzarik jaso, edo, jaso badira, jatorria, zenbatekoa eta helburua zehaztea.



- Gastuen justifikazioa, faktura aurkeztuta, 14.2. puntuan zehaztutako salbuespenarekin.

- Faktura banku transferentziaren bidez ordaindu delako frogagiria edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarria duen agiri baliokidea, 14.2. puntuan zehaztutako salbuespenarekin.

Nolanahi ere, 1.000 euroko edo gehiagoko gastuak banku transferentziaren edo bankuko beste tituluren baten bidez egiaztatu beharko dira, Iruzuraren kontrako prebentzio ekintzei eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzei buruzko uztailaren 9ko 11/2021 Legeak xedatutakoari jarraikiz.

- Oinarrietan laguntza ildo zehatzetarako ezarritako dokumentazio espezifikoa.

- Hala badagokio, emakumezkoei kontratu berriak egin zaizkiela egiaztatzeko, langileek Gizarte Segurantzaren alta hartu dutela ziurtatzen duen dokumentazioa, basogintzako enpresa ziurtagiriak edo langile autonomoek emandako faktura. Emakidan laguntza bat lehenetsia izan eta agiri horiek aurkezten ez badira, horrek berekin ekarriko du laguntza bete ez izana.

- Kudeaketa organoek eskatzen dioten behar adina dokumentazio.

14.2. Moduluen bidez zenbatutako inbertsioen kasuan, ordainketa benetan gauzatutako eta Nekazaritza Sailak egiaztatutako unitate fisikoen arabera izango da.

14.3. Dirulaguntzak ordainduko dira, behin inbertsioei buruz behar diren kontrolak eta egiaztapenak egin ondoren, eta oro har egiaztapen partziala edo behin betikoa aintzat hartuz. Dirulaguntzaren onuradun diren erakunde publikoek Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritakoa bete beharko dute.

14.4. Laguntzaren baten ordainketa urte batean baino gehiagotan zatitu bada, aurreikusitako urteetan ordainduko da, laguntza gordailutu zen aurrekontuen pentzura. Nolanahi ere, azken urtesaria edo ziurtapena ordaintzeko, inbertsioak guztiz gauzatuta egon beharko du.

14.5. Honako dekretu honetan ezarritako dirulaguntzen onuradun diren pertsonak kobratzeko eskubideak laga ahal dizkiete kontratista esleipendunei edo hornitzaileei; hala, zuzenean jasoko dute ordainketa bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa.

15. artikulua.- Onuradunen betebeharrak.

Oro har, laguntzen onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

15.1. Emandako dirulaguntza onartzea eta, zer xede zehatzetarako eman dieten, hartarako baliatzea, laguntzak esleitzeko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera. Dirulaguntza esleitu zaiolako jakinarazpena jaso eta hamar egun balioduneko epean onuradunak ez badio berariaz eta idatziz uko egiten, adituko da onartu duela. Mendi Zerbitzuak aldaketak onartu ahal izango ditu emandako dirulaguntzaren xede zehatzari dagokionez, betiere, emakidan konkurrentzia aldatzen ez badute, helburu baliokidea badute eta gauzatu aurretik jakinarazten badira edo obraren gorabeheraren ondoriozko doikuntza txikiak badira. Kasu horietan, dirulaguntzaren zenbatekoa benetan gauzatutakora egokituko da, baina ezin izango da jatorrizko dirulaguntza baino handiagoa izan.

15.2. Lanak edo proiektuak aurrera eramatea emakida ebazpenean ezarritako epearen barruan.



15.3. Dirulaguntzaren xede izan diren inbertsio eta gastuei eustea 5 urteko epean gutxienez, gauzatuak izan direnetik. Basotzeko laguntzak salbuetsiko dira; izan ere, halakoetan gutxieneko epea espeziearen txandari dagokiona izango da. Hala, onuradunak basotzea bertan behera utzi edo suntsitzen badu, hari egotz dakioken arrazoiarengatik, inbertsioa ez dela bete ulertuko da.

15.4. Foru dekretu honetan oinarrituz laguntza neurrien xede diren lurren eskualdaketei dagokienez, titulartasun berria subrogatu beharko da eta, beraz, onuradunak bere gain hartutako konpromisoak bete beharko ditu.

15.5. Foru dekretu honen itzalpean jasotako dirulaguntzei dagokienez dituzten funtzioak baliatuz, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ogasun sailek, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileko organo eskudunek, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Europar Batasuneko organo eskudunek laguntzari buruz eskatzen duten informazio oro ematea.

15.6. Europar Batasuneko, estatuko, erkidegoko edo foru aldundiko arautegiek ezarritako kontrolak igarotzea, administraziozkoak, tokian bertakoak, gerorakoak edo kalitatezkoak.

15.7. Hala dagokionean, baldintzak betetzea, ezarpen gastuak izan ezik; horiek lekuan bertan egindako kontrolen eta kontrol administratiboen bidez egiaztatuko dira.

15.8. Zonaldeko Basozaintzari jakinaraztea hasi direla ondoren ebidentzia fisiko gutxi edo bateru uzten duten jarduketak, hala nola ongarritzea edo tratamendu fitosanitarioak.

16. artikulua.- Ez betetzeak.

16.1. Onuradunak honako foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako betebeharrak eta konpromisoak bete ezean, edo laguntza eskuratuz gero horretarako beharrezkoak diren betekizun guztiak bete gabe, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dizkio Arabako Foru Aldundiko Ogasunari, bai eta legezko interesei dagokien zenbatekoa ere, eta laguntza bera edo geroko ordainketetan jaso beharreko zenbatekoak gutxituko zaizkio, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzenak, ezarritakoari jarraikiz bidezkoak diren beste egintza batzuk gorabehera.

16.2. Epe zehatz batean diruz lagundutako inbertsioa atxikitzeari buruz 15.3 artikuluan ezarritako konpromisoa ez betetzeak berekin ekarriko du jasotako laguntza itzuli beharra edo atxikia izan ez den denbora tartearen heinean hainbanatu beharra.

16.3. Gerta daiteke emakida ebazpenean ezarritako epean diruz lagundutako lanak edo proiektuak ez gauzatzea edo onetsitako inbertsioaren zenbatekoaren ehuneko 50etik behera gauzatzea, betiere Nekazaritza Sailak behar bezala baliozkotutako justifikaziorik gabe; halakoetan, foru dekretu honetan jasotako laguntzak jasotzeko eskubidea galduko da lana edo proiektua gauzatu beharreko ondorengo bi deialdietan zehar.

16.4. Foru dekretu honetan oinarrituz laguntza neurrien xede izandako lurren eskualdaketei dagokienez, titulartasun berria subrogatzen ez bada onuradunak bere gain hartutako konpromisoak betetzeko, jasotako dirulaguntzak itzuli beharko ditu, betiere itzulketan beharrezko interesak gehituta.



16.5. Emakumeei kontratuak egin zaizkiela egiaztatzen duten agiriak aurkezten ez badira, laguntza galduko da, hala dagokionean.

16.6. Itzultzen diren zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarrera izango dira, legezko ondorioetarako.

16.7. Nekazaritza Sailaren foru agindu bidez erabakiko da dirulaguntzaren itzulketa osoa edo horren zati bat, ikuskapen edo kontrol txostena eta itzultzeko proposamena ikusirik, eta onuradunari entzun ondoren.

16.8. Laguntzak osorik edo partzialki itzultzeko prozeduraz gain, Arabako Lurralde Historikoa Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak xedatutako arau hausteengatik zehapen prozedura abiarazi ahal izango da.

17. artikulua.- Araubide juridikoa.

Foru dekretu honetan adierazitako dirulaguntzen onuradunak Arabako Lurralde Historikoa Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak hura aplikatzeko onartu zuen Erregelamenduan eta Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko arau aplikagarrietan xedatutakoaren mende egongo dira. Horiek horrela, behartuta egongo dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileak, Euskal Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten organoek eskatzen dizkieten agiriak aurkeztera, halaxe xedatzen baitu aipatutako foru arauak 8 i) artikuluan.

18. artikulua.- Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin.

18.1. Foru Dekretu honetan azaldutako laguntzak bateragarriak dira Arabako Foru Aldundiak eta beste Herri Administrazio batzuek ezartzen dituzten laguntzekin, betiere dagokion deialdiak bateraezintasunen bat ezartzen ez badu.

18.2. Laguntza bateragarri guztien batura ezin da izan inbertsoaren ehuneko 100 baino gehiago. Horri dagokionez uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Arautegiaren 34. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

19. artikulua.- Laguntzen finantzazioa.

19.1. Foru Dekretu honetan xedatutako laguntzetarako baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren aurrekontu kredituetatik etorriko dira, laguntza nazionaltzat hartuko dira eta deialdi bakoitzean ezarritako zenbatekoak izango dituzte muga.

19.2. Europako baterako finantzaketaren kasuan, baldintzak deialdian zehaztuko dira.

20. artikulua.- Lehenetsun irizpideak.

Aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko kreditu erreserba nahikorik ez badago, laguntzak emateko puntuazio sistema bati jarraituko zaio, honako lehenetsun irizpide hauetan oinarrituta, edo, hala badagokio, inbertsioen erregulazio zehatzean zehazten direnetan:



1. Administrazioak onartu eta baso kudeaketa iraunkorreko egiaztapen sistema bati atxikitako antolamendu proiektua edo baso kudeaketa iraunkorreko plana (BKIP) duten mendietako jarduketak: 25 puntu
2. Natura 2000 Sarean sartutako mendietako jarduketak: 20 puntu
3. Mendi pribatuetako jarduketak:
 - Jabeen talde edo elkarte bateko pertsona fisikoek sustatutako proiektuak: 10 puntu.
 - Gazteek sustatutako proiektuak (41 urtetik beherakoak): 5 puntu.
 - Emakumezkoek sustatutako proiektuak edota emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituztenak: 5 puntu.
4. Mendi publikoetako jarduketak:
 - Ziklo ertain edo luzeko hazkundera duten espezieei bideratutako proiektuak: 10 puntu
 - Emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituzten proiektuak: 10 puntu

Puntuetan berdinketarik egonez gero, inbertsio bolumenik txikiena duten jarduketak lehenetsiko dira.

II. TITULUA. Laguntza larroen arabarako xedapen espezifikoak

21. artikulua.- Basotzea.

Neurriaren xedea da zuhaitzik gabe dauden lurretan baso masak sortzea zuzeneko landaketa edo ereintza bidezko basotze lanak eginez edo, behar bezain trinkoa den edo tokiaren baldintzetara egokiturik dagoen azalera izanez gero, hobekuntza eta kontserbazio lanak egingo dira berezko birsorkuntzari begira.

21.1. Diruz lagun daitezkeen jarduketak.

Diruz lagundu ahal izango dira basotzeari lotutako inbertsio eta gastu lagungarriak, hala nola: lurra prestatzeko lana, landarearen kostua, zulaketa, landaketa, ereintza, babesgarriak, hesiak edo itxitura, lehenengo urteko marren birjarpena.

Honakoak baztertuko dira:

- Basotzeko inbertsioak, baldin eta basoen kudeaketa jasangarriaren printzipioekin bat datozen ingurumen eta klima helburuekin koherenteak ez badira, basotzeko eta basoberritzeko zuzentarau paneuroparretan garatzen diren moduan.
- Baso espezie autoktonoen birsorkuntza naturala duten azaleren basotzeak, dentsitate eta estaldura nahikoarekin, espeziea aldatzea baimentzen denean izan ezik.
- EAEko Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Plan Sektorialean balio estrategiko handikotzat hartutako lurak basotzeko lanak.
- Lurraren kontserbazioa eta erregimen hidrikoa arriskuan jar dezakeen lur prestatzeko azaltzen duen edozein basotze.
- Paisaia berezi batean, hondakin arkeologikoetan, monumentuetan eta abarretan inpaktu negatibo nabarmena izan dezaketen basotzeak.



- Manuzkoa denean, ingurumen eraginari buruz aurreikusten diren ebaluazioen ondorioz onartzen ez diren basotzeak, betiere aplikagarria den legeriaren arabera.

- Abuztuaren 2ko 630/2013 Errege Dekretuan sartutako espezieekin egitekoak diren basotzeak; izan ere, dekretu horretan espezie exotiko inbaditzailearen Espainiako katalogoa arautzen da.

- Gabonetako arbolekin egindako basotzeak, energia ekoizteko sortutako masak, ekoizpen makaldiak, eukaliptoak edo hazkunde azkarreko bestelako espezieak, baldin eta mozteko duten txanda 20 urtetik beherakoa bada, boilurrak, fruta arbolak.

- Hazkunde azkarreko espezieekin basotzea ateratze bideraezineko azaleretan.

- Basotzeak, baldin eta itxituraren edo lotutako babesaren kostua basotzearena bera baino handiagoa bada.

- Basoen kudeaketa jasangarriaren irizpideekin bat ez datozen basotzeak, Mendi Zerbitzuaren justifikazio txostenaren arabera.

- Basotzeak hondakinak erretzeko.

21.2. Baldintza zehatzak.

21.2.1. Basotze lanak egiteko aukeratutako espezieak basoko urtaroaren baldintzetara egokiturik egongo dira eta honako baldintza hauek beteko dituzte.

Natura 2000 Sarearen zati diren tokietan basotzea adierazitako kudeaketa helburuekin izango da bateragarria.

Espezie autoktonoak baino ez dira erabiliko, edo bilakaera naturalerako 5 metroko zabalerako banda utziko da ur ibilguen ertz bakoitzeko.

5 hektareatik gorako azalera jarraituen kasuan, espezie hostozabal autoktonoak erabiliko dira gutxienez azaleraren ehuneko 10ean, baso-sartze bidez edo birsortze naturala errespetatuz. Salbuespen gisa, Mendi Zerbitzuak ehuneko txikiagoa baimendu ahal izango du, mendiaren ekoizpen-egokitasun bikainagatik edo justifikatutako beste arrazoi batzuegatik.

Landatu beharreko zuhaitzen dentsitatea 550etik 1.100 zuhaitzera bitartekoa izango da hektarea bakoitzeko, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

Eskaeran adierazi beharko da zer prestaketa mota erabiliko den basotzeetan. Malda, luraren egoera edo klima egoera kontuan hartuz, makineria mugatu ahal izango da, edo hondakinak birrintzeko edo ezpaltzeko edo lurra eskuz prestatzeko lana laguntzaren baldintza gisa ezarri ahalko da.

Basotzeen itxiturek ez dute jabari publiko hidraulikoaren zortasun eremua luzetara hartuko.

Basotzea egiaztatu ondoren, azalera SIGPACeko baso erabilera izan beharko du; onuradunek hori eguneratzeko betebeharra izango dute.



21.2.2. Ugalketako baso materialak ekoizteko, merkaturatzeko eta erabiltzeko indarrean dagoen araudia bete beharko da, betiere basoetako landaretza hobetzeko indarreko programetan ezarritakoaren arabera.

21.2.3. Intsinis pinuko edo itsas pinuko landaririk erabiliz gero basotzeak aurrera eramateko, landarea aukeratutako kategoriako eta goragoko kategoriako ugalketaren baso materialetik etorriko da edo lege baimendutako inportaziotik. Hazitegiek Euskal Herriko itsasertzeko edo mendietako intsinis pinuko landare ekoizpena bermatu ahal badute eskaerari aurre egiteko behar adinako kopuruan, laguntza ukatu ahal izango zaie jatorrizko erregio hori erabiltzen ez duten birlanaketei.

21.2.4. Itxiturak eta babesgarriak basotzea edo berezko birsorkuntza babesteko erabiliko dira. Itxituraren kalitatea behar bezainbestekoa izango da basotzearen mantenimendua bermatzeko eta gehienez ere hiru urteko epean jarri beharko da birlanaketa egin ondoren.

21.2.5. Itxitura edo babesgarriako laguntzak berekin dakar hura kendu beharra, behin arboladiaren biziraupena bermatuta. Kendutako materiala birziklatu beharko da edo baimendutako bilketa zentro batera lekualdatu.

21.2.6. Espezie autoktonoen ereintza baizik ez da diruz lagunduko, behin Mendi Zerbitzuaren aldeko txostena eskuratuta. Haziaren kalitate eta jatorria egiaztatuko dira dirulaguntzarako espedienteari hornitzailearen edo hazia ziurtatzeko erakunde eskudunaren agiria erantsiz.

21.3. Laguntzaren zenbatekoa.

21.3.1. Laguntza kalkulatzeko, espezie taldeak ezartzen dira, bai eta foru dekretu honen II. eta III. eranskinetan azaltzen diren gehieneko inbertsio kopuruak edo moduluak ere.

21.3.2. Laguntzaren zenbatekoa kopuru horiei honako portzentajeak aplikatzearen ondoriozkoa izango da espezie taldeen arabera:

Zikloa	Kudeaketa plana	Ehunekoak
Laburra	Planik ez	40
Laburra	Plana bai	60
Ertaina	Planik ez	50
Ertaina	Plana bai	65
Ertaina, hostozabal autoktonoak	Planik ez	75
Ertaina, hostozabal autoktonoak	Plana bai	85
Luzea	Planik ez	85
Luzea	Plana bai	90

21.3.3. Itxituren eta babesgarrien dirulaguntzaren gehieneko kopurua ezarriko da erabilitako espezie taldearen arabera; horretarako, III. eranskinean zehazten diren gehieneko inbertsioen edo moduluen zenbatekoak izango dira aplikagarri. Horrek basotzearen laguntza kopuru bera izango du.

21.3.4. Ereiteko jarduketan dirulaguntzaren gehieneko ehunekoak espeziearen zikloaren arabera landaketari legokiokeen berbera izango da, eta mikorrizazio jarduketetarako, berriz, ehuneko 50. Mendi Zerbitzuaren txosten teknikoan onartutako inbertsio zenbatekoari aplikatuko zaie.

21.4. Dokumentazio zehatza.



21.4.1. Laguntza eskaeran honakoak zehaztuko dira: espeziea, landare mota, basotzeetako lurra prestatzeko lanean erabiliko diren bitartekoak, landaredia eta hondarrak tratatzeko modua (birrindu edo ezpaldu egingo den zehaztuta) eta landaketaren dentsitatea.

21.4.2. Erabilitako haziaren eta landarearen jatorria egiaztatuko da laguntza ordaintzeko eskaerari hornitzailearen agiria erantsiz, betiere behar bezala beteta.

21.4.3. Mikorrizazioaren operazioan eskaerari erantsi beharko zaio basogintzako teknikari batek izenpetutako memoria tekniko bat; memorian horretan honakoak adieraziko dira: helburuak, erabili beharreko metodologia eta baso masaren balio ekonomikoaren gehikuntza aurreikusia.

21.5. Lehentasun irizpideak.

20. artikuluan ezarritako irizpide orokorren arabera.

22. artikulua.- Basoetako kalteak prebenitzea.

Neurri honen xedea da basoen babes baldintzak sendotzen dituzten baso masen berezko arriskuengatik kalteak prebenitzeko jarduketek ekitea edo arrisku horien babes azpiegiturak hobetzea.

22.1. Diruz laguntzeko moduko jarduketak eta baldintzak.

Basoko prebentzio jarduketak diruz lagundu ahalgo dira, hala nola mehazketak, sasitzak kentzea, inausketak, hobetze mozketak, tratamendu fitosanitarioak (prebentziozkoak eta/edo bioestimulatzailak erabiltzen dituztenak), inausketa edo mehazketako hondakinak kentzeko lanak edo beharrezkoak izan daitezkeen bestelako baso lanak.

Halaber, diruz laguntzeko modukoak izango dira suteen edo berezko arriskuen kontra eskala txikian aurrera eramandako tokian tokiko prebentzio jarduketak, esaterako suebakiak sortzeko lanak, artzaintzako animalien erabilera suebakiak mantentzeko, higaduraren kontra lurrak finkatzeko azpiegiturak eraikitzea edo basoko suteak, izurriak eta gaixotasunak zaintzeko instalazioen ezarpena eta komunikazio ekipoa.

22.2. Baldintza zehatzak.

22.2.1. Baso masen txandan, gehienez ere jarduketa hauek diruz lagunduko dira, Mendi Zerbitzuak justifikatutako arrazoiengatik behar bezala baliozkotutako salbuespenetan izan ezik:

- Sasitzak kentzea: 3 koniferetan eta 5 hostozabaletan
- Inausketak: 2
- Mehazketak, hobetze mozketak eta bakanketak: 2 jarduketa ez-emankor.
- Tratamendu fitosanitarioak: 2

Inausketaren garaiera gehienez ere arbolaren garaiera osoaren heren bat izango da.

22.2.2. Honako hauek ezin ezingo dira diruz lagundu:

- Zuhaitzaren enberrari edo inausketaren ondorengo zur eraketaren kalitateari kalte egiten dioten inausketa askadunak.



- Neurritz gaineko inausketak edo goiztiarregiak. Koarentenako gaixotasunik sortuz gero, laguntza ukatu ahal izango da gaixotasuna sortzen den eremuetan.

- Sasitzak kentzeko lanak, tratamendu fitosanitarioak, inausketak, mehazketak eta bakanketak, arrazoi teknikoengatik ukatuak izan diren basotzeetatik datozen masetan.

- Sasitzak kentzea erregai karga txikiko gainazaletan

22.2.3. Diruz lagundutako azaleretan sasitzak kentzea edo bakanketak, mehazketak edo hobetze mozketak egiten badira, nahitaez kendu beharko dira panpa-lezka ale guztiak (Cortaderia selloana), buddleia eta beste espezie aloktono inbaditzaile batzuk, eta errotik atera eta hondarrak kendu egingo dira.

22.3. Laguntzaren zenbatekoa.

Laguntzaren zenbatekoa III. eranskinean ezarritako gehieneko inbertsioen edo moduluen kopuruei ehuneko 50eko portzentajea aplikatzearen ondoriozkoa izango da; hala ere, hobetze mozketei, suebakiak larre bihurtzeko jardunei, inausketa hondakinen kudeaketari, hondakinak eskuz kenduz sortutako bakanketei, hondarrak birrintzeari edo ezpaltzeari eta tratamendu fitosanitarioei ehuneko 85eko portzentajea aplikatuko zaie.

22.4. Dokumentazio zehatza.

Tratamendu fitosanitarioei dagokienez, erosketa faktura aurkeztu beharko da edo tratamendua egin duen enpresaren faktura; bertan erabilitako produktua zehaztuko da. Gainera, lanak egin aurretik eta gutxienez 48 ordu lehenago bertako basozainari jakinaraziko zaio. Abisu hori ematen ez bada, laguntza ordaintzeari uko egin ahal izango zaio.

22.5. Lehenetasun irizpideak.

20. artikuluan ezarritako irizpide orokorren arabera.

23. artikulua.- Basoetako kalteak konpontzea.

Neurri honen helburua da suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako edota klima aldaketaren ondorioz sortutako baso potentzial kaltetua eraberritzeko jarduketak aurrera eramatea.

23.1. Diruz laguntzeko moduko jarduketak eta baldintzak.

Dirulaguntza jaso dezakete:

- Baso masak eraberritzeko jarduketak, ukitutako materialen hondakinak kudeatuz edo horiek basotuz edo mehazteko baso lanak, sasitzak kentzeko lanak, inausketak edo hobetze mozketak eginez.

- Higaduraren eta irristaduren kontra lurrak finkatzeko azpiegiturak konpontzea.

- Basoko suteak, izurriteak eta gaixotasunak eta komunikazio ekipoa zaintzeko instalazioak konpontzea.

23.2. Baldintza zehatzak.



Laguntza jasotzeko ezinbesteko baldintza honakoa izango da: agintaritza publiko eskudunak ofizialki aintzatestea sute edo natura hondamendia izan dela eta gertakari horiek edo gaixotasun begetal edo izurritea desagerrarazteko edo hari eusteko neurriek gutxienez baso potentzialaren ehuneko 20ko suntsiketa eragin dutela.

Laguntzetatik kanpo geratuko dira suteek, hondamendi naturalek, gaixotasunek edo baso izurriteek kaltetutako zuhaitz masen hondarrak mozteko edo ezabatze inbertsioak, baldin eta ebaketaren ondorengo baso berritzea eukalipto generoko espezierekin egiten bada.

23.3. Laguntzaren zenbatekoa.

Laguntzaren zenbatekoa III. eranskinean ezarritako gehieneko inbertsioen edo moduluen kopuruei ehuneko 50eko portzentajea aplikatzearen ondoriozkoa izango da; hala ere, hobetze mozketei ehuneko 85eko portzentajea aplikatuko zaie eta ukitutako materialak kentzeko lanei ehuneko 100ekoa.

23.4. Dokumentazio zehatza.

Haien larritasuna dela-eta berehalakoan konpondu beharreko azpiegitura edo basoak ukitzen duten gertakaririk izanez gero, onuradunek ahalik eta azkarren jakinaraziko diote Mendi Zerbitzuari, konponketa lanei ekin baino lehenago; zerbitzu horrek beharrezko kontrolak egingo ditu. Laguntza eskaera bideratu beharko da kalteak izan diren dataren ondorengo deialdian.

23.5. Lehentasun irizpideak.

20. artikuluan ezarritako irizpide orokorren arabera.

24. artikulua.- Ingurumen helburuak dituzten baso jarduketak.

Neurri honen xedea da baso estalduraren egoeraren hobekuntza eragiten duten inbertsio ez-emankorrak aurrera eramatea, klima aldatetari egokitzeko eta ekosistemak zerbitzuez zuzkitzeko ikuspuntutik abiatuz.

24.1. Diruz lagun daitezkeen jarduketak.

Honako jarduketa talde hauek lagundu ahal izango dira diruz:

- Baso antolamendu eta baso kudeaketa jasangarriko planak, suteak prebenitzeko planak, larreak kudeatzeko plan teknikoak eta basoetan esku hartzeko seinalatze eta neurketa lan teknikoak egitea eta ezartzea, hori guztia erabilera publikoko mendietan.
- Aprobetxamendu komertzialik gabeko baso jarduketak egitura hobetzeko eta dibertsifikazio espezifikorako, birsorkuntza naturalari laguntzea, egur hila sortzea, aberasteko baso landaketak, intereseko habitatetan inbertsioak egitea (itxitura txikiak edo barrutiak), hazi bankuak edo material begetatiboa sortzea.
- Baso jabetza publiko eta pribatua sendotzeko jarduketak: mugaketa proiektuaren aurreko lanak, mugaketak, mugarritzatzea, katalogatzea, trukatzeko, ondasun eta okupazioen inbentarioak, partzuergoak, zamak eta kargak, erabilera publikoko mendietan dauden lurak eta erabilera publikoko



mendien mugakide diren lurrak eskuratzea, balio ekologiko handiko lursailak eskuratzea erakunde publikoek kontserbatzeko, eta mendi multzoak eta kontzentrazioak.

- Mendiaren erabilera publikoa lagundu eta arautzeko jarduketak, inbertsioak aisialdirako eremuetan, bidexketan, seinaleetan eta zuhaitzen egitura hobetzeko tratamenduetan, erorketen edo beste helburu batzuen ondoriozko arriskuak prebenitzeko.

24.2. Baldintza zehatzak.

Baso jarduketak aurreikusi beharko dira Administrazioak onartutako baso kudeaketa iraunkorreko plan batean, antolamendu plan batean edo lanabes baliokide batean. Natura 200 Sarearen barruan dauden lurri dagokienez, horiek guztiak bateragarriak izango beharko dute eremua kudeatzeko helburuekin.

Eskuratze jarduketetan, ez da diruz lagunduko ziklo laburreko espezieen hegaldiaren kostua, ezta ziklo ertaineko espezie aloktonoena ere.

24.3. Laguntzen zenbatekoa.

Laguntzen zenbatekoa gehieneko inbertsioei honako ehuneko hauek aplikatzearen ondoriozkoa izango da:

- Antolamendu planak egitea eta ezartzea, ehuneko 90; seinalatze eta neurtze lan teknikoak izan ezik, horiek ehuneko 50 izango dira.
- Baso jabetza publikoa sendotzeko jarduketak, ehuneko 90
- Aprobetxamendu komertzialik gabeko baso jarduketak, ehuneko 50
- Erabilera publikoa laguntzeko eta arautzeko jarduketak, ehuneko 50

24.4. Dokumentazio zehatza.

Antolamendu proiektuen edo kudeaketa plan teknikoaren kasuan, eskaerari idazketa arautuko duen baldintza agiria erantsiko zaio, eta ordainketa eskaerarekin batera erakunde jabearen onespena aurkeztuko da.

Baso jabetza publikoa sendotzeko jarduketarako laguntzen eskaeretan, eskuragarri dauden jabetza tituluak alegatu eta Mendi Zerbitzuaren eskura jarriko dira, bai eta, halakorik egonez gero, alde aurreko prozedura administratibo edo judizialekin zerikusia duten bestelako agiriak ere. Kokaguneak eta beste lursail batzuk eskuratzeko jarduketetan, eskaerarekin batera proposatutako tasazioaren justifikazioa aurkeztuko da, bai eta jabetza fisikoki eta juridikoki araztuta dagoela egiaztatzen duen agiria ere.

Laguntza ordaintzeko, erakunde titularrak lursailak dagokion erabilera publikoko mendian sartzeko eskaera egin beharko du.

24.5. Lehentasun irizpideak.

Laguntzak emateko, jarduketa taldeei emango zaie lehentasuna, 24.1 puntuan adierazitako hurrenkeraren arabera.

Jarduketa talde bakoitzean puntuazio sistema bati jarraituko zaio, honako irizpide hauetan oinarrituz, jarduketa motaren arabera:



24.5.1. Aldez aurreko azterlanak, mugaketak, mugarritzatzea, mendi multzoak eta kontzentrazioak, erabilera publikoko mendien planak:

- Natura 2000 Sarean sartutako mendietako jarduketak: 25 puntu.
- Erabilera publikoko mendien (EPM) mugei eragiten dieten jarduketak: 20 puntu.
- Aldez aurreko auziak edo betearazi beharreko epai judiziala dituzten mendietan aurrera eramaten diren jarduketak: 18 puntu.
- Administrazioak onartu eta baso kudeaketa iraunkorreko egiaztapen sistema bati atxikitako antolamendu proiektua edo baso kudeaketa iraunkorreko plana (BKIP) duten mendietako jarduketak: 15 puntu.

24.5.2. Gainerako eragiketak:

20. artikuluan ezarritako irizpide orokorren arabera.

25. artikulua.- Baso potentziala hobetzeko inbertsioak

Laguntzaren xedea da baso potentziala hobetzera edo basoko produktuen balioa handitzera zuzendutako inbertsioak bultzatzea.

25.1. Diruz lagun daitezkeen jarduketak.

Dirulaguntza jaso dezakete:

Baso kudeaketa iraunkorreko plan teknikoak prestatzeko eta abiarazteko lanak, kudeaketa pribatuko mendietan.

Ongarritzea.

25.2. Laguntzaren zenbatekoa.

Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, III. eranskinean ezarritako gehieneko inbertsioen edo moduluen kopuruei ehuneko 40ko ehuneko aplikatuko zaie ongarrizeari dagokionez, eta ehuneko 80koa kudeaketa planei dagokienez.

25.3. Dokumentazio zehatza.

Ongarritzeko eragiketari txosten teknikoak erantsi beharko zaio, lurzoruaren azterketa bat eginda, erabili beharreko ongariaren eta haren dosiaren gomendioa ezarriko duena. Laguntza ordaindu aurretik beharrezkoa izango da ongariaren erosketa faktura aurkeztea edo ongarritze lanak egin dituen enpresaren faktura; bertan erabilitako produktuaren osaera zehaztuko da. Gainera, lanak egin aurretik eta gutxienez 48 ordu lehenago bertako basozainari jakinaraziko zaio. Abisu hori ematen ez bada, laguntza ordaintzeari uko egin ahal izango zaio.

25.4. Lehenetasun irizpideak.

20. artikuluan ezarritako irizpide orokorren arabera.



26. artikulua.- Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak.

26.1. Nekazaritza eta basogintzako sistemak

Laguntzaren helburua basogintza eta artzaintza sistemak mantentzea da, biodibertsitatearen kontserbazioan eta karbono hustuleku gisa duten eginkizunagatik.

26.1.1. Diruz lagun daitezkeen jarduketak.

Diruz lagun daitezkeen inbertsioak eta gastuak erabilera publikoko mendietarako dira, eta honako hauek hartzen dituzte:

Sasitzak garbitzea eta larreak hobetzeko beste jarduketa batzuk

Azienda maneiatzeko azpiegiturak: baso larreetako itxiturak, zuhaitzatarako babesleak, Kanadar pasabideak, askak, abeltzaintzako mahukak, etab.

26.1.2. Baldintza zehatzak.

Itxiturek ez dute jabari publiko hidraulikoaren zortasun eremua luzetara hartuko.

Abeltzaintzako itxiturak akazia edo gaztainondo hesolez egingo dira, eta salbuespenezko kasu justifikatuetan soilik baimenduko da metalezko hesolak edo pinu tratatuzko egurrezko hesolak erabiltzea.

Proposatutako inbertsioak 50.000 eurotik gorakoak direnean, plan tekniko bat egon beharko da, larre baliabideak antolatzeke gidalerroak, larreak aprobetxatzeko plana eta larreak hobetzeko plana jasoko dituen, eta jarduketek plan teknikoarekin koherenteak izan beharko dute. Hiru urteko epe iragankorren nahikoa izango da plana idazteko edo egokitzeko lanak hasi direla egiaztatzea.

Ez da dirulaguntzarik emango nekazaritza laboreak erabilera publikoko mendietan ezartzea edo jarraitzea laguntzen duten jardueretarako, kontserbazio arrazoiengatik behar bezala justifikatutako salbuespenetan izan ezik.

Kokagune partikularrekin edo antzeko lurrekin muga egiten duten mendi publikoen baso larreetako itxituren tarteetan, baldin eta hautematen bada inbertsioak partikular bati on egiten diola, onuraduna erakunde publikoa den zatia bakarrik lagundu ahal izango da diruz. Kasu zehatzari buruzko daturik izan ezean, erdia dela balioztatuko da.

26.1.3. Laguntzaren zenbatekoa.

Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, diruz lagundu daitezkeen gastuei III. eranskinean ezarritako gehieneko inbertsioen edo moduluen kopuruei ehuneko 70 aplikatuko zaie.

26.1.4. Dokumentazio espezifikoa.

Erakunde edo partikular mugakideen edo entitate partaidetuen berariazko adostasuna aurkeztu beharko da baso larreetako itxituren honako kasu hauetan:



- Trazaduraren arrazoi teknikoak direla eta, inoren jabetzak hartzen direnean.
- Hainbat erakunde jabeen herri basoen zatiketak
- Bide administratiboan edo judizialean dauden mugetan itxiturak egitea

Larreak ixteko eta bestelako azpiegiturak egiteko eskaerekin batera honakoak aurkeztuko dira: kokapen edo xehetasun planoak (bertan obraren ezaugarriak zehaztuz) eta zerbitzua ematen zaion azalera.

26.1.5. Lehetasun irizpideak.

Laguntzak emateko, lehetasun hurrenkera ezarriko da eragindako larre hektarea kopururik handienaren arabera.

26.2. Basoetako pistak

26.2.1. Diruz lagun daitezkeen jarduketak.

Baso pistak mantentzeko eta hobetzeko lanak: plataforma eta drainatzeak egokitzea, finkatzea, harri lubetak, ur pasabideak, sakanguneak, hormigoitutako tartekak, etab.

Baso pista berriak eraikitzea, salbuespen gisa.

26.2.2. Baldintza zehatzak.

Pista berrien trazaketari dagokionez, batez besteko aldapa ehuneko 12tik beherakoa izango da eta edozein tartetan orotara izan ahalko duen aldapa ehuneko 16koa izango da gehienez. Salbuespen gisa, aldapa handiagoa onar liteke, memorian justifikatzen diren eta Mendi Zerbitzuak onartzen dituen kasuetan.

26.2.3. Laguntzaren zenbatekoa.

Laguntzaren zenbatekoa artatutako azaleraren arabera izango da:

- Baso azalerarako < 20 ha: ehuneko 30.
- Baso azalerarako > edo = 20 < 50 ha: ehuneko 45.
- Baso azalerarako > edo = 50 eta < 100 ha: ehuneko 60.
- Baso azalerarako > edo = 100 eta < 200 ha: ehuneko 70.
- Baso azalerarako > edo = 200 ha: ehuneko 80.

Aparteko edo muturreko fenomeno naturalek kaltetutako azpiegiturak konpontzeko berebiziko interesa duten kasuei dagokienez, ehuneko 10eko osagarri estra bat izango dute.

26.2.4. Dokumentazio espezifikoa.

Baso pistak egokitzeko edo konpontzeko laguntza eskaerekin batera memoria bat aurkeztu behar da, eta honako hauek jaso behar dira: jarduketaren deskribapen zehatza, neurketak, kokapen eta xehetasun planoak eta zer azalerari ematen zaion zerbitzua.

Baso pista berrietarako laguntza eskaerekin batera teknikari eskudunak prestatutako proiektu edo proposamen teknikoak aurkeztuko dira. Proiektu edo proposamen horrek honakoak jasoko ditu: inbertsio premia justifikatzen duen memoria, kokapen eta xehetasun planoak, zerbitzua ematen zaion azalera,



aldapa ertain eta gorenak, ekintzen deskripzio zehatza, aurreikusitako helburuak eta onurak, buruztapenaren programazioa, aurrekontu unitario eta orokorra eta ingurumen eraginari buruzko azterlana manuzkoa den mailan.

Aparteko edo muturreko fenomeno naturalek kaltetutako azpiegituren kasuan, inguruabar horiek justifikatu beharko dira.

26.2.5. Lehenetasun irizpideak.

Laguntzak emateko, honako lehenetasun irizpideak ezartzen dira:

- Lehenetasunezkoak izango dira aparteko eta muturreko natura fenomenoek kaltetutako azpiegiturak konpontzeko espedienteak.
- Lehenetasun hurrenkera ezarriko da ukitutako baso hektarea kopururik handienaren arabera.

26.3. Lehenetasuna

26.3.1. Neurri honek diruz lagun dezakeen jarduketan artean jarduketa bat baino gehiago eskatuz gero, eskatzaileek lehenetasun hurrenkera bat erabaki beharko dute eskaeran bertan.

Lehenetasun horietan oinarrituta, talde independenteak ezarriko dira, eta, lehenik eta behin, lehenetasunezko lehen taldean sartutako jarduerak aztertuko dira. Ondoren, oraindik kreditua badago, hurrengo taldeak aztertuko dira, harik eta kreditua agortu arte.

Talde bakoitzak lehenetasuna izango du hurrengoaren aldean. Erreserbatutako kreditua talde batean agortzen bada, talde bereko eta hurrengoetako gainerako jarduketak ukatuko dira.

Kreditu erabilgarria agortzen den lehenetasun taldeari dagozkion laguntzak emateko, 26.1.5 eta 26.2.5 artikuluetan ezarritako irizpideak jarraituko dira; berdinketarik egotekotan, zenbateko txikiena eskatzen duen inbertsioari emango zaio lehenetasuna.

Jarduketa bakar baterako laguntza eskatuz gero, lehenengo lehenetasun taldean dagoela ulertuko da beti.

27. artikulua.- Basoen kontserbazioa.

Neurri hau garatzen da indarreko arautegitik haragoko baso eta ingurumen konpromiso gehigarriak borondatez hartzen dituzten eta basoetan edo balio handiko basoetan edo sistemetan kontserbazio jarduketak egiten dituzten baso titular publikoei zuzendutako laguntzak definitzeko.

27.1. Diruz lagun daitezkeen jarduketak.

Dirulaguntza jaso dezakete:

- Basoak edo baso balio handiko sistemak kudeatzeko eta antolatzeko planetan ezarritako kontserbazio jarduketak.
- Baso sistemak mantentzeko lanak, hartutako konpromisoei lotutako kontserbazio jardunen bitartez.

27.2. Baldintza zehatzak.

Erakunde onuradunek gutxienez 7 urteko epean bete beharko dituzte honako betekizun hauek:



a) Onartutako baso kudeaketa iraunkorreko plana edo antolamendu proiektua izatea.

Gunea Natura 2000 Sarearen barneko eremu batekin osorik edo partzialki bat badator, ekintzak bateragarriak izango dira Natura 2000 Sarea kudeatzeko kontserbazio helburuekin.

b) Baso kudeaketa iraunkorrari dagokionez, honako jardunetarikoz batzuk aplikatzea:

Azken mozketen txanda aldi batez luzatzea edo atzeratzea, interesa duten habitatak edo fauna edota flora espezieak babesteko.

Baso lurrak babesteko neurriak, horretarako inpaktu txikiko metodoak erabiliz baso aprobetxamenduak izan bitartean.

Mozketaren inpaktua txikitzea, kablea edo animalien trakzioa erabiliz egurra ateratzeko pista berriak egin beharrez.

Basoak eta habitat bereziak babesteko edota ekosistema espezie babestuen baldintzetara egokitzeko xede duten bestelako jarduketak.

c) Baso kudeaketa iraunkorreko honako jardun hauek nahitaez betetzea:

Identifikatutako paisaiaren edo natura edo kultura ondarearen elementu interesgarriak zehaztea eta babestea: habitat bereziak, erriberak, ekotonoak, espezie mehatxatuak, etab.

Mozketak egiten direnean, honakoak zutik uztea, halakorik egonez gero: basotxoak eratzen dituzten natura espezieak, horien barnean oin zaharrak, hilak, lehorrak edo lurrera botatakoak sartuz. Zeregin hori arrisku fitosanitarioen edo sute arriskuen muga egokien barruan bete behar da.

Prebentzio neurri egokiak hartzea baso lanak egiten direnean, ibarren eta hezeguneen gaineko kalteak minimizatzeko, zubi eramangarriak edo inpaktu txikiko bestelako metodoak erabiliz, beharrezkoa izanez gero.

Indarreko arautegian nahitaezkotzat hartutako gain, basogintza eta ingurumenaren aldetik bestelako konpromiso osagarriak hartzea eta horien bidez kontserbazio jarduketak aurrera eramatea.

27.3. Laguntzaren zenbatekoa.

Kudeaketa eta antolamendu planek basoetan edo baso balio handiko sistemetan ezarritako kontserbazio jarduketak gastuen zenbatekoaren ehuneko 100arekin lagunduko dira diruz.

Hartutako konpromisoei lotutako kontserbazio jardunen bidez baso sistemak mantentzeko lanak honela lagunduko dira diruz: urtean 90,00 euroko gehieneko primarekin hektareako; hori guztia Mendi Zerbitzuaren txosten batek baloratuko du.

27.4. Lehenetasun irizpideak.

Laguntzak emateko, puntuazio sistema bati jarraituko zaio, honako irizpide hauetan oinarri hartuz:

1. Natura 2000 Sarean sartutako mendietako jarduketak: 25 puntu.



2. Mendi publikoetako jarduketak:

- Ziklo ertain edo luzeko hazkundera duten espezieei bideratutako proiektuak: 5 puntu
- Emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituzten proiektuak: 5 puntu

Puntuetan berdinketarik egonez gero, inbertsio bolumenik txikiena duten jarduketak lehenetsiko dira.



II. ERANSKINA.

ESPEZIE TALDEAK

Espezie taldeak	Espezieak
Ziklo laburra	<i>P. radiata</i> , <i>P. taeda</i> , <i>P. pinaster</i> .
Ziklo ertaina	<i>Pseudotsuga menziesii</i> , <i>Larix spp.</i> , <i>Chamaecyparis lawsoniana</i> , <i>Cryptomeria japonica</i> , <i>Picea spp.</i> , <i>Cedrus spp.</i> , <i>P. nigra</i> , <i>P. sylvestris</i> , <i>Sequoia spp.</i> , <i>Quercus rubra</i> , <i>Liriodendron tulipifera</i> .
Hostozabal autoktonoen ziklo ertaina	<i>Betula spp.</i> , <i>Prunus avium</i> , <i>Fraxinus excelsior kantauriarra</i> , <i>Acer pseudoplatanus</i> , <i>Alnus glutinosa</i>
Ziklo luzea	<i>Castanea spp.</i> , <i>Juglans spp.</i> , <i>Q. robur</i> , <i>Q. petraea</i> , <i>Q. ilex</i> , <i>Q. suber</i> , <i>Fagus sylvatica</i> , <i>Tilia platyphyllos</i> , <i>Alnus glutinosa mediterranea</i> , <i>Fraxinus excelsior mediterranea</i> , <i>P. pinaster mediterranea</i> .

Zerrendan agertzen ez diren espezieak Mendi Zerbitzuak sailkatuko ditu haien ezaugarriak kontuan hartuz.



III. ERANSKINA.

MODULUAK

Espezie taldeak	Aldez aurreko prestaketa	Modulua (euro/ha)
Ziklo laburreko basotzea	Prestaketarik gabe	1.600
	Eskuzkoa	2.700
	Mekanizatua	2.300
	Marrak	205
Ziklo ertaineko basotzea	Prestaketarik gabe	1.900
	Eskuzkoa	2.950
	Mekanizatua	2.550
	Marrak	245
Hostozabal autoktonoen ziklo ertaineko basotzea	Prestaketarik gabe	1.950
	Eskuzkoa	3.150
	Mekanizatua	2.800
	Marrak	245
Ziklo luzeko basotzea	Prestaketarik gabe	2.150
	Eskuzkoa	3.300
	Mekanizatua	2.850
	Marrak	260
Gehigarria, basotu ondoren hondakinak birrindu edo ezpaltzeagatik		400

Basotze moduluaren barruan lurra prestatzeko lana, zulaketa, landarea eta landaketa sartzen dira.

Jarduketa	Deskribapena	Modulua
Sasitzak kentzea	Eremu guztia	600 euro/ha
	Lerroka edo tarteka	360 euro/ha
Itxitura	Itxitura sare zinegetikoarekin + hari arantzadun 1 edo 5 hari	7 euro/ml
	Alanbre arantzaduneko ilarak dituen itxitura; 4 ilara gutxienez	6,2 euro/ml
	Itxitura altua sare zinegetikoarekin, 1,5 m + alanbre arantzaduneko 2 hari	8,9 euro/ml
	Itxiturak kentzea	1,85 euro/ml
Babesgarriak	1,80m + taketa	4,4 euro/ut
	1,50m + taketa	3,8 euro/ut
	1,20m + taketa	2,8 euro/ut
Mikorrizazioa		190 euro/ha
Mehazketa hondakinak kendu gabe		330 euro/ha
Hostozabalak sortzeko mozketak, hondakinak kendu gabe		300 euro/ha



Bakanketa	Bakanketa ez-emankorra, hondakinak kendu gabe	600 euro/ha
	Hostozabalen bakanketa ez-emankorra, hondakinak kendu gabe	650 euro/ha
Inausketa	Koniferoen inausketa baxua	595 euro/ha
	Koniferoen inausketa altua	750 euro/ha
	Hostozabalen inausketa baxua	435 euro/ha
	Hostozabalen inausketa altua	720 euro/ha
Kimuak aukeratzea hostozabaletan		595 euro/ha
Larreak bihurtzea, hala nola hesiak edo suebakiak		1.085 euro/ha
Hobetze mozketak hondakinak kendu gabe		720 euro/ha
Hondamendiak prebenitzeko jarduketak	Inausketa, bakanketa edo hobetze mozketetako hondarrak eskuz kentzea	290 euro/ha
	Inausketa, bakanketa edo hobetze mozketetako hondarrak xehatu edo ezpaltzea	590 euro/ha
Izurriteak eta gaixotasunak prebenitzeko jarduketak	Tratamendu fitosanitarioa lurraren gainean	150 euro/ha
	Tratamendua, aire baliabideak erabiliz	65 euro/ha
Ongarritzea	Ongarritze goiztiarra (200 kg/ha)	300 euro/ha
	Ongarritze dentsoa (500 kg/ha)	450 euro/ha
PTGFS bakuna	4 esparru edo gutxiago	200 euro/plan
	5-9 esparru	240 euro/plan
	10-19 esparru	320 euro/plan
	20 esparru edo gehiago	440 euro/plan
Gehigarria, dentsitate handiko espezie exotiko inbaditzaileen hondarrak erroitik atera eta kentzeagatik		500 euro/ha
<p>Hondamendien ondorengo jarduketak. Eragindako zuhaitzak garbitzea, moztea, birrintzea, kentzea edo guztiz kentzea (unaden baso soiltzea): moduluak 3.000 euro/ha-ko balioa izango du zuhaitz adin hauetarako:</p> <ul style="list-style-type: none"> • 16 urte arte, ziklo laburreko espezieen kasuan. • 22 urte arte, ziklo ertaineko koniferoen kasuan. • 24 urte arte, ziklo ertaineko hostozabal autoktonoen kasuan eta ziklo luzeko espezieen kasuan. <p>Adin horien ondoren, modulua modu linealean jaitsiko da, harik eta 1.450 euro/ha-ko gutxieneko baliora iritsi arte; ziklo laburreko espezieen kasuan, 30 urteko zuhaitzak, ziklo ertaineko espezieen kasuan, 50 urteko zuhaitzak eta ziklo luzeko espezieen kasuan, 90 urteko zuhaitzak. Adin horiek gaudituz gero, ez da kontzeptu horrengatik laguntzarik emango.</p>		